

MUBIL MOBILITY EXPO 2024KO ARAUDIA

I. artikulua: Araudia. FICOBAn Fundazioaren Azoka Jardueretarako Araudia MUBIL MOBILITY EXPO 2024ko Araudi honekin bateginik geratzen da, bertako osagaia baita eta, horrenbestez, Erakustaldian honetan osorik aplikatzeko, atal guztiak dagokienez. www.mubilexpo.eus webguneako erakusketariaren atalean kontsulta dezakezu araudi hau.

II. artikulua: Non eta noiz. MUBIL MOBILITY EXPO 2024 Ficoban egingo da, Gipuzkoako Erakustazokan: Iparralde hiribidea 43, 20302 Irun, 2020ko apirilaren 17 eta 18an, hurrengo ordutegian: apirilak 17 9:30etatik 18:00etara eta apirilak 18 9:30etatik 17:00etara

III. artikulua: Produktuak eta zerbitzuak. Sektore hauetako enpresak izango dira MUBIL MOBILITY EXPO 2024n erakusketari:

- Auto, motozikleta, furgoneta, kamioi, autobus eta tranbien fabrikazio eta muntaketa eta azpikontratazioa
- Bizikleten, patineten eta mugikortasun pertsonaleko beste ibilgailu batzuen fabrikazio eta muntaketa eta azpikontratazioa
- Karga azpiegiturak
- Energia biltegitratzea
- Osagaien fabrikazioa
- Energia hornikuntza
- Mugikortasun konektatu eta/edo autonomorako soluzioak
- Mugikortasun partekaturako zerbitzuak
- Intermodalitate soluzioak, MaaS eta eskatu ahalako garraioa
- Emisio gutxiko eremuak kudeatu eta kontrolatzeko sistemak
- Garraio sistema inteligentek, ustiapenean laguntzeko sistemak eta bidaiariei informazioa emateko sistemak
- Big data, adimen artifiziala, gauzen interneta (IoT), blockchain, infotainment eta zibersegurtasuna
- Aparakamendu soluzio digitalak
- Teknologia iza ikerketa zentroak
- Startup-ak
- Aholkularitza
- Klusterak, inkubagailuak eta elkarteak
- Unibertsitateak eta Langile Heziketa
- Administrazio publikoak / erakundeen ordezkaritza
- Ingeniaritza zibila, herri lanak eta azpiegiturak
- Kaleko altzariek eta hirigintza taktikorako soluzioak, trafikoa baretzeko soluzioak eta irisgarritasun soluzioak
- Mugikortasun jasangarriarako soluzio integralak

Antolatzaileak, eskabidea aztertu ondoren, produktu edo zerbitzuei uko egin diezaieke, iruditzen bazaio ez datozela bat erakustaldian xedearekin.

IV. artikulua: Parte hartzeke moduak.

A) LURZORUA SOLIK

Gutxieneko eremua: 18m2

Prezioa/m2: 110 €/m2 + % 10 BEZ

Barne hartzen du: Koadro elektrikoa, 1.200 W-ko Schuco entxufe monofasikoarekin, web-katalogoan sartzea eta azokari buruzko informazio orokor-
rean; B2B bilera adosteko aplikazio informatikoa; bisitarietako informazioa. Doako aparkalekua

B) STAND MODULAR PACKA

Gutxieneko eremua: 12m2 / Gutxieneko sakonera: 3m

24m2 arte: 206 €/m2 + % 10 BEZ

25m2tik aurrera: 186 € m2 gehigarria + % 10 BEZ

Barne hartzen du: lurzoria, melaminazko horma zuriak, aluminiozko profilak, errotulua, moketa, koadro elektrikoa Schuco entxufe monofasikoarekin eta 50w/m2-ko argiztapen-fokuekin, mahai borobila edo mahai altua; hiru aulki edo hiru taburete; erakusmahai bat; erantzukizun zibileko ase-gurua; web-katalogoan sartzea eta azokari buruzko informazio orokorra; B2B bilera adosteko aplikazio informatikoa; bisitarietako informazioa; Doako aparkalekua.

C) START UP ENPRESENTZAKO PACKA

Eremua: 4 m2

Prezioa: 576 € + % 10 BEZ

Barne hartzen du: lurzoria, melaminazko horma zuriak, aluminiozko profilak, errotulua, moketa, koadro elektrikoa Schuco entxufe monofasikoarekin eta 50w/m2-ko argiztapen-fokuekin, mahai altua eta bi taburete; erantzukizun zibileko aseguruak; web-katalogoan sartzea eta azokari buruzko informazio orokorra; B2B bilera adosteko aplikazio informatikoa; bisitarietako informazioa; Doako aparkalekua.

D) TEST GUNEA

Aparkaleku bakoitza: 5x2m

Prezioa/aparkaleku: 344 € + % 10 BEZ

Ez du konexio-zerbitzurik hartzen barne. Eskatu antolakuntzari.

Barrualdean stand bat kontratatu duten enpresek solik kontrata ditzakete Test Guneko eremuak. Test Gunean produktu eta zerbitzuak erakuts ditezke. Ibilgailu/motor/bizikleten gidatze-probak egin ahal izango dira bisitarietzat.

Test Gunea Ficobaren kanpoko zelaigunean dago kokatuta, aire-zabalean.

2016/679 (EB) Erregelamendua eta gure pribatutasun-politikak (www.ficoba.org webgunean) xedatutakoaren arabera, jakinarazten dizugu FICOBAn FUNDAZIOAREN fitategietan sartuko direla eman dizkiguzun datuak, zuri etorkizuneko ekitaldien berri emateko. Sarbidea izateko, zuzentzeko, ezabat-zeko eta ahozkoa izateko, mugatzeko, eramangarritasunerako eta aurka egiteko eskubideak bala ditzakezu, idazki bat bidaliz FICOBAn FUNDAZIORA (Iparralde etorb, 43. 20302 Irun) edo ficoba@ficoba.org helbide elektronikora.

FICOBAn FUNDAZIOA, IPARRALDE hiribidea 43, 20302 Irun – Tel: (+34 943 667788) – IFK: G2081676

V. artikulua: Zerbitzu osagarriak. Erakusketariak zerbitzu eta altzari osagarrien katalogoa daukate eskuragarri erakusketariaren intranet-ean, www.mubilexpo.eus web gunean. Zerbait kontratatu nahi izan ezker, jarri harremanetan antolakuntzarekin.

VI. artikulua: Izena ematea eta parte hartzeke kontratua. Izena emateko izapidea "Erakusketariak onartzeke eskabidea" online inskripzioaren bidez egin behar da. Eskabidea jasotakoan, FICOBAn telefonoz edo idatziz baieztatuko du erakusketaria onartu den, irizpideak betetzen diren kasuetan. Hala izanez gero, erakusketariak gutlizkoaren % 50 ordainduko du, eta zuzenbideko ondoretarako une horretatik aurrera "parte hartzeke kontratuzat" hartuko da izena emateko eskabidea. Transferentzia bidez ordainduko da, FUNDAZIO FICOBAn izenean (IBAN: ES 16 2095 5381 1210 6428 5785 SWIFT: BASKES2BXXX).

VII. artikulua: Eremua esleitzea. Erakusketariak beren inskripzio osoa iritsi den ordenari jarraizki aukeratu dute kokalekua, eta inskripzio osotzat hartuko da FICOBAn behar bezala jasotzea bai eskabidearen inprimakia, beteta, bai kontratatutako eremuaren % 50ari dagokion diru-sarrerara. Antolakuntzak berretzat gordetzen du eraginortasuna dela-eta kokalekua aldatzeko ahalmena, eta erakusketariak ez du izango horregatik kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik.

VIII. artikulua: Katalogo ofizialean sartzea. Katalogo ofiziala MUBIL MOBILITY EXPO 2024ren web-orrian agertuko da. Erakusketariak sektoreen arabera eta ordena alfabetikoa inaurtuko dira katalogo ofizialean, eta erakusketariak dagokion inprimakian horretarako utzi den eremuan adierazi dituen datuak jasoko dira bertan.

IX. artikulua: Erakusketari-paseak. Azoka-egunetarako, baita muntatze eta desmuntatzeko egunetarako ere, erakusketari bakoitzak doako erakusketari-paseak jasoko ditu standean egongo diren langileentzat: 4 pase 12m2ko stand bakoitzeko, eta bat gehiago kontratatutako 30 m2 bakoitzeko.

X. artikulua: Gonbidapenak. FICOBAn doako 10 gonbidapen emango dizkio erakusketari bakoitzari kontratatzen duen m2 bakoitzeko.

XI. artikulua: Aparkalekua. Ficobako aparkalekua doakoa da, baina muntatze, azoka eta desmuntatzeko egunetan, gauetan zehar (22:00etatik biharamuneko 8:00ak arte) utzitako ibilgailuen matrikularen berri eman behar zaio antolakuntzari.

XII. artikulua: Muntatu eta desmuntatzea. Diseinuko standak muntatzeko eta stand modularrak apaintzeko egunak apirilaren 15a eta 16a izango dira, 8:00etatik 20:00etara bitarte. Desmuntatzeko egunak apirilaren 18a, 17:00etatik 22:00etara, eta apirilaren 19a, 8:00etatik 20:00etara, izango dira. Muntatzeko eta desmuntatzeko garaian ezingo da merkantzien zama-lanetarako ibilgailurik sartu pabilioietan. Erakusketariak edo haren instalazio, material edo merkantziek kalterik eragiten badu standetan edo azoka egiten den instalazioetan, erakusketariaren kargura izango da.

XIII. artikulua: Merkantziak aurrez bidaltzea eta jasotzea. Enpresa erakusketariak aurrez bidali ahal izango du Antolakuntzak jasoko duen merkantzia. Egun eta orduetegi hauetan jasoko du aurrez: apirilaren 8tik 12ra eta apirilaren 15a eta 16a 9:00etatik 13:00etara. Enpresa garraiolarikak bere kabuz eta bere arriksupean deskargatuko du merkantzia, eta kamioi plataformazkoan ekarri behar du horretarako. Orga jasotzailea erabil behar bada, enpresa erakusketariari fakturatuko zaio zerbitzua. Aurrez erreserbatu ezan, ezin da bermatu orga jasotzailea erabilgarri egongo denik. Ez da jasoko merkantziarik apirilaren 8an ordainketa guztiak eginak ez dituzten enpresengandik.

XIV. artikulua: Standei arreta. Erakusketariak behar bezalako arreta jarri behar dio standari Erakustaldia zabalik dagoen ordutan

XV. artikulua: Entzunaldi eta emanaldiak. Standetan musika-entzunaldiak edo film nahiz sustapen-bideoen emanaldiak egiten badira, kontuan izan Egileen eta Argitaratzaileen Sozietate Nagusiari ordaindu beharreko egile-eskubideak daudela, eta erakusketariak zuzenean bere gain hartzen duela horren erantzukizun osoa. FICOBAn FUNDAZIOAK ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik, ez zuzenean ez zeharka, ez Sozietatearekiko ez erakusketariarekiko.

XVI. artikulua: Ezeztatzea eta parte hartzeari uko egitea.

Uko egitea lehiaketa inauguratu aurreko 5 hilabeteak baino lehen gertatzen bada, ordura arte ordaindutako zenbatekoaren % 100 itzuliko zaio. Uko egitea lehiaketa inauguratu aurreko 5 hilabeteen artean gertatzen bada, eremuaren gutzitiko zenbatekoaren % 50 itzuliko zaio. Uko egitea lehiaketa inauguratu aurreko 60 egunetan gertatzen bada, eremuaren gutzitiko zenbatekoaren % 10 itzuliko da. Uko egitea inaugurazioaren aurreko 60 egunen ondoren gertatzen bada, espazio osoa ordaintzeko eskatuko da. Ukoak formalki jakinarazi behar daio Antolakuntzari, eta uko hori jaso den eguna hartuko da ofizialtzat. Erakusketariak uko egin eta gero, antolakuntzak eskumena izango du erreferentziako eremua berak egoki irizitzeko noibaiti esleitzeko.

XVII. artikulua: Ficoba Fundazioak berretzat gordetzen du erakusketariak laburtu, luzatu edo atzeratzeko eskubidea, inguruabar bereziak edo ezinbesteko kausak direla-eta beharrezkoa bada, eta erakusketariak ez dute jasoko horregatik kalte-ordainik.

XVIII. artikulua: Aseguruak. Azokan parte hartzeke kontratazioak hirugarrenentzako Erantzukizun Zibileko Aseguruak barne hartzen du. Beste edozein aseguru erakusketariaren betebeharra izango da.

XIX. artikulua: Enpresa erakusketariaren langileak. Erakusketari bakoitza izango da bere stand kudeatzen duten langileen erantzule, baita haien erantzule ere. Zergak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen erantzule ere.

XX. artikulua: Betekizun legal, sanitario eta eskalak. Parte hartzen duten enpresa guztiak legez jardun behar dute, betekizun legal, sanitario eta fiskal guztiak betez. Enpresa erakusketariak antolakuntzaren eta / edo agintari eskudunen eskura jarri behar dutez egoera hori egiaztatzen duten agiri guztiak

XXI. artikulua: Argazkigintza eta irudiak hartzea. Ficobako erakustazokara sartzen diren edo bertan denbora pasatzen duten pertsona guztiak jakinarazten zaie bertan argazki eta bideo grabazioak egin daitezkeela. Ficobako esparrura sartzen, pertsona horien onartzen dute haien argazkiak eta grabazioak, aurrez egin irudiak barne, erabili ahal izango direla kasuan kasuko azokari buruzko erreportajeen testuinguruan, telebistan, ekoizpen pribatu filmetan, euskarri inprimatuetan eta online euskarrietan, eta, bereziki, web orrietan, sare sozialetan eta bideo-plataformetan, Ficobako esparrura sartu aurretik erabilera horren aurka esplizituki egiten ez badute behintzat.

XXII. artikulua: Zaintza. MUBIL MOBILITY EXPOK ezarritako zaintza-zerbitzua (sarbideak eta kanpoko zaintza), azoka-aldi osoan (muntaketa, ospakizunak eta desmuntatzea), bai eta esparruaren zaintza orokorreko zerbitzua ere (pabilioien barrualdeak, biltegiak, etab.), disuasio-zerbitzua, segurtasun orokorrekoa eta prebentzioak dira, suteen edo larrialdien aurkako ordena eta segurtasun gaietarako. Inola ere ez da erakusketari bakoitzaren gauza partikularrei zuzendutako segurtasuna. MUBIL MOBILITY EXPOK, beraz, ez du bere gain hartuko stand bakoitzean utzitako ekipoa eta objektuak lapurtu edo ebestea, ezta azoka egin aurretik, bitartean edo ondoren objektuek, laginek, gauza pertsonalek, muntatzeko eta/edo erakusteko materialek jasan ditzaketen kalteak ere. Stand bakoitzeko gauza partikularren zaintza eta segurtasuna, beraz, erakusketari bakoitzaren erantzukizuna da.

2016/679 (EB) Erregelamendua eta gure pribatutasun-politikak (www.ficoba.org webgunean) xedatutakoaren arabera, jakinarazten dizugu FICOBAn FUNDAZIOAREN fitategietan sartuko direla eman dizkiguzun datuak, zuri etorkizuneko ekitaldien berri emateko. Sarbidea izateko, zuzentzeko, ezabat-zeko eta ahozkoa izateko, mugatzeko, eramangarritasunerako eta aurka egiteko eskubideak bala ditzakezu, idazki bat bidaliz FICOBAn FUNDAZIORA (Iparralde etorb, 43. 20302 Irun) edo ficoba@ficoba.org helbide elektronikora.

FICOBAn FUNDAZIOA, IPARRALDE hiribidea 43, 20302 Irun – Tel: (+34 943 667788) – IFK: G2081676